


## Ospitalizazioen % 83ri Euskal AEko ospitale publikoetan eman zaie arreta 2021ean, eta Estatuan, % 72,4ri, batez beste

**Euskal AEn 100.000 biztanleko tasa 10.679 ospitalizaziokoa izan da; alegia, Estatuko batez bestekoa baino handiagoa (9.536)**

Euskal AEko ospitaleek 233.853 ospitalizazio izan dituzte 2021ean, aurreko urtean baino % 5,1 gehiago, Eustaten datuen arabera; alegia, Estatu osoaren % 5,2. Igoera hori izan da 2020an COVID-19aren inpaktuaren ondorioz ospitalizazio kopurua % 10,1 jaitsi ondoren.

Arreten % 83 ospitale publikoetan izan dira, Estatuan baino ia ehuneko hamaika puntu gehiago (% 72,4), eta honako autonomia-erkidego hauen aurretik kokatu da: Katalunia (% 51,1), Balear Uharteak (% 64,1), Madrilgo Erkidegoa (% 65,4) eta Kanariak (% 71); autonomia-erkidego horien arreta publikoaren datuak Espainiako batez bestekoa baino baxuagoak dira.


### Ospitaleratzeak, ospitalearen, Erkidegoaren eta Hiri autonomoaren mendekotasunaren arabera (%). 2021



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Euskal AEk 100.000 biztanleko 10.679 ospitalizazio izan ditu; hala, Estatuko batezbestekoaren gainetik dago (9.536), eta ospitalizazio-tasa handienak dituzten autonomia-erkidegoen artean, Kataluniaren (11.048), Aragoiren (10.978) eta Asturiasko Printzerriaren (10.764) ondoren.

Sexuaren arabera, gizonen propozioa (% 50,7) emakumeena (% 49,3) baino pixka bat handiagoa izan da; Estatu-mailan, altuagoa izan da emakumeetan (% 51,7). Haurdunaldi, erditze eta puerperioaren gertakariak kontuan hartu ezean, emakumeen ehunekoa baxuagoa izango litzateke Euskal AEn, % 45,8koa (% 47,3koa Espainian). Zahartzearen berezko aldaketen ondorioz, ospitaleratutako pertsonen erdiek baino gehiagok, % 51,1ek, 65 urte eta gehiago izan dituzte (% 46,5 Espainian).



Ospitalizazio-kausa nagusiak, Estatuan bezala, zirkulazio- eta digestio-gaixotasunak izan dira; ospitalizazio guztien % 25,8 izan dira (% 25,2 Espainian), eta, ondoren, tumoreak eta, azkenik, traumatismoak eta lesioak, % 9 baino gehiagoko ehunekoekin. Bestalde, alderik handienak haurdunaldi, erditze eta puerperioaren taldean izan dira; ospitalizazioaren bosgarren kausa ohikoena izanik Espainian (% 8,3) zortzigarren postuan egon da Euskal AEn (% 6,6), arnas gaixotasunen, aparatu muskuloeskeletikoen eta genitourinarioen atzetik.

### ***Euskal AEn ospitalizazioen % 5,3 COVID-19aren eraginez izan dira, Estatuan bezala***

Euskal AEko ospitaleetako ospitalizazioen 12.394 kasutan, guztira, COVID-19a izan da kausa nagusia; alegia, Euskal AEko 2021eko ospitalizazioen % 5,3, Estatuko ehuneko bera. Gainera, kausa horregatik ospitaleratuta egon diren egun kopurua 123.389 egunekoa izan da; egonaldia, batez beste, ia 10 egunekoa (11,9 egun Estatuan).

COVID-19agatik ospitalizazioen % 58,1 gizonena izan da eta % 41,9, emakumeena (% 57,6 eta % 42,4 Espainian). Adin-taldeen arabera, kasuen ehuneko handiena 65-84 urteko taldeari egokitu zaio (% 36,1), ondoren, 45-64 urtekoari (% 34,4), 85 urte eta gehiagokoei (% 15) eta 25-44 urtekoari (% 12,4).

Ospitalearen asistentzia-xedearen arabera, ospitalizazioen % 94,6 akutuen ospitaleetan izan dira (221.264 ospitalizazio), % 4,1 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan (9.566) eta % 1,3 (3.023) psikiatrikoetan.

## Ospitaleratzeak Euskal AEko ospitaleetan, gaixotasun talde ohikoenen arabera, asistentzia-helburuari jarraiki. 2021

|                                                                           | Guztira        |            | Akutuak    | Egonaldi ertain-luzea | Psikiatrikoak |
|---------------------------------------------------------------------------|----------------|------------|------------|-----------------------|---------------|
|                                                                           | Kopurua        | %          | (%) ##     | (%) ##                | (%) ##        |
| <b>DIAGNOSTIKO-TALDE HANDIAK</b>                                          |                |            |            |                       |               |
| <b>Guztira</b>                                                            | <b>233.853</b> | <b>100</b> | <b>100</b> | <b>100</b>            | <b>100</b>    |
| Zirkulazio-aparatua                                                       | 31.016         | 13,3       | 13,1       | 19,7                  | 2,9           |
| Uleri-aparatua                                                            | 29.131         | 12,5       | 13,1       | 2,6                   | -             |
| Neoplasiak                                                                | 21.953         | 9,4        | 9,5        | 8,7                   | 0,0           |
| Traumatismoak eta lesioak                                                 | 21.614         | 9,2        | 9,5        | 5,1                   | 1,0           |
| Arnas aparatua                                                            | 18.957         | 8,1        | 7,9        | 15,2                  | 0,0           |
| Aparatu muskulueskeletikoa                                                | 18.440         | 7,9        | 8,2        | 2,7                   | 0,0           |
| Aparatu genitourinarioa                                                   | 16.556         | 7,1        | 7,2        | 6,4                   | -             |
| Haurduntza, erditzea eta erdiberriroa                                     | 15.436         | 6,6        | 7,0        | -                     | -             |
| Helburu berezien kodeak (COVID-19)                                        | 12.394         | 5,3        | 5,1        | 8,8                   | 10,2          |
| Sintoma eta aurkikuntza anormal klinikoak                                 | 11.043         | 4,7        | 4,9        | 2,4                   | 0,4           |
| Nahasmendu mentalak eta portaerarenak                                     | 7.511          | 3,2        | 2,2        | 1,0                   | 84,1          |
| Nerbio-sistemako gaixotasunak                                             | 5.606          | 2,4        | 2,3        | 4,4                   | 1,4           |
| Osasun-egoeran eragina duten faktoreak eta osasun-zerbitzuekiko harremana | 5.514          | 2,4        | 1,8        | 16,2                  | -             |

Ehunekoa ospitaleratze guztien gainean kalkulatu da

CIE -10 : Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 10. bertsioa

Data 2023ko Martxoaren 27a

Iturria: Eustat, Ospitaleetako erikortasun-inkesta

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleek eta psikiatrikoek, ospitalizazioen % 5,4rekin, akutuen ospitaleen ereduaz bestelakoa dute, bai tratatzen dituzten patologien gainetik bai ospitaleko egonaldiaren iraupenagatik.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, ospitalizazio gehienak (% 51,1) zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragin dute (% 19,7), ondoko zaintzetarako, kirurgia ondokoetarako, aringarrietarako eta beste batzuetarako osasun-zerbitzuekiko kontaktuek (% 16,2) eta arnas-aparatukoak (% 15,2); batez besteko egonaldia 19 egunekoa izan da. Ospitale psikiatrikoen kasuan, eskizofrenia izan da gehien diagnostikatu den patologia.

### Metodologiari buruzko oharra

Eragiketa estatistiko hau Estatistikako Institutu Nazionalarekin (EIN) elkarlanean egin da.

Estatuko eta nazioarteko estatistikekin erkatu ahal izateko, ospitalizazioaren modalitatean 1 eguneko edo gehiagoko egonaldia duten gertakariak baino ez dira kontuan hartzen; alegia, ez dira kontuan hartzen 0 eguneko gertakariak. Egonaldiaren iraupena ospitaleratu den egunetik alta eman arteko egunera bitartean igaro den egun-kopuruaren arabera kalkulatu da, ospitaleratze- edo alta-orduak aintzat hartu gabe.

Euskal AEn, 100.000 biztanleko ospitalizazio-tasa 2021/07/01eko populazioa kontuan hartuta kalkulatu da.

### Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62